



ORIOKUDALA



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2019ko urtarrilaren 29a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:05 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:15

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Jose Angel Iparragirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkaria

Jon Carrera Jauregui

Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ), Aitziber Campos Morey zinegotziak (EAJ) eta Aizpea Ubegun Manterola zinegotziak (EH Bildu) adierazi dute ezin zutela etorri eta, beraz, ez dute bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Orioko Herri Ikastolak aurkeztutako idatzia, hobariak aplikatzea eskatuz eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan.
- 2.- Onartzea, egoki bada, kudeaketa-gomendioaren hitzarmena, Donostiako Musika eta Dantza Eskolaren eta Orioko Udal Musika Eskolaren artekoa, lan-poltsak modu bateratuan kudeatzekoa, haiek musika eta dantza ikastetxeetan erabili daitezen.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2019ko aurrekontu propioa.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2019ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

Gai-zerrenda irakurri aurretik, alkateak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: EH Bildu, Orain eta PSE-EE talde politikoen bozeramaileen eskariz, kendu egiten ditu bilkura honetako gai-zerrendatik 3. eta 4. puntuak. Udalbatzarrak otsaileko lehen hamabostaldian egingo duen ezohiko bilkuran aztertuko ditu puntu horiek.

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HERRI IKASTOLAK AURKEZTUTAKO IDATZIA, HOBARIAK APLIKATZEA ESKATUZ ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko Udalak Herri Ikastolari emandako hiru obra-baimen direla-eta, ikastolak 7.794,58 euro ordaindu zizkion Udalari 2016 eta 2018 artean, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren aplikazioagatik.

Orioko udalbatzarrak, 2018ko apirilaren 24ko ohiko bilkuran, aldaketa bat onartu zuen eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalean, Gipuzkoako Toki Ogasuna arautzen duen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldaketa horren arabera, udalbatzarrak %95era arteko hobaria ezarri zuen honako aitortpena lortzen duten eraikuntza, instalazio eta obren gainean: interes berezikoak edo onuragarriak izatea udalerrarentzat, arrazoi sozialengatik, kulturalengatik, historiko-artistikoengatik edota enpleguaren sustapenagatik. Aitorpen hori udalbatzarrak egin behar du,



subjektu pasiboak aldeztu aurretik hala eskatuta, eta udalbatzarkideen gehiengo sinplearen aldeko botoa behar da onartzeko.

Udalbatzarrak ontzat hartzen du aitortzea Orioko Herri Ikastola KOOP. E entitatea interes berezikoa edo onuragarria dela udalerrarentzat, arrazoi kulturalengatik.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2019ko urtarrilaren 11n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- AITORTZEA Orioko Herri Ikastola KOOP. E interes berezikoa edo onuragarria dela udalerrarentzat, arrazoi kulturalengatik.

2.- ONARTZEA %95eko hobaria aplikatzea Orioko Herri Ikastola KOOP. E entitateari eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan, 2016tik 2018ra ordaindu dituen hiru zergei dagokienez (zenbatekoa, guztira: 7.794,58 euro); eta, horren ondorioz, **ONARTZEA** Orioko Herri Ikastola KOOP. E entitateari 7.404,85 euro itzultzea.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KUDEAKETA-GOMENDIOAREN HITZARMENA, DONOSTIAKO MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAREN ETA ORIOKO UDAL MUSIKA ESKOLAREN ARTEKOA, LAN-POLTSAK MODU BATERATUAN KUDEATZEKOA, HAIEK MUSIKA ETA DANTZA IKASTETXEETAN ERABILI DAITEZEN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2019ko urtarrilaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA kudeaketa-gomendioaren hitzarmena, Donostiako Musika eta Dantza Eskolaren eta Orioko Udal Musika Eskolaren artekoa, lan-poltsak modu bateratuan kudeatzekoa, haiek musika eta dantza ikastetxeetan erabili daitezen.

2.- AHALMENA EMATEA Danbolin udal musika-eskolako zuzendari M. Elena ERRASTI MARQUINEZi, hitzarmen hori sinatzeko Orioko musika-eskolaren izenean.

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere ustez larria izan dela alkateak KARKARA aldizkariari esandakoa: alegia, Muntoko



ORIOKUDALA



udal-partzelako alokairuzko etxebizitzek ghetto bihurtzeko arriskua dutela. Esaten du, bere ustez, ultraeskuineko alderdi politikoek egiten dituztela horrelako adierazpenak eta jakin nahi du ea EAJ talde politikoak bat egiten duen alkatearen adierazpen horrekin ala bere kasa egin duen.

Alkateak hartzen du hitza eta Emeteriori erantzuten dio KARKARA aldizkariari egindako adierazpenak bere izen propioan egin dituela eta ez alderdiaren izenean. Bestalde, adierazten du KARKARARI esandakoa ez dela berak asmatua, baizik-eta bere horretan jaso duela hirugarren pertsona batzuek esan diotena.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,